



WWW.ZEHAR.EUS



PROPOSAMENAK

ERREFUXIATUEN BABESA
BERMATZEKO

2023

UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK

TESTUINGURUA

Azken tokiko hauteskundeak 2019an izan ziren. Urte horretan bertan, bost urteko hazkunde esponenzialaren ondoren, Euskadin inoiz egindako nazioarteko babes eskaera gehien jaso ziren (4.827). Hazkunde horrek argi eta garbi erakusten du egungo testuingurua: gero eta gatazka latzagoak eta gero eta indar gehiagoz urratzen diren giza eskubideak.

Lehendik ere mugen militarizazioa eta kanporatzea eta migrazio-mugimenduen kriminalizazioa oztopo handia ziren ihes egin behar zutenentzako. Bada, pandemiak are gehiago zaildu zien dena 2020ko martxotik aurrera. Kontrol sistemak gogortu zituzten pandemiaren babespean (eta aitzakiapean), eta horrek Europara itsasoz iritsi nahi zutenak

gero eta ibilbide arriskutsuagoak hartzera behartu zituen. Pertsona askok, gero eta gehiagok, ez zuten lortu: 2020 eta 2022 artean 5.744 pertsona hil edo desagertu ziren Espainiako kostaldera iritsi nahian. Gaur, orain, hiltzen ari dira.

Gaizki deituriko 'normaltasuna' berreskuratzen saiatzen ari ginenean (ez litzateke 'normaltasuna' deitu beharko jazarpena normaltzat hartzen den bitartean), Ukrainako gerraren izugarrikeria iritsi zen eta milioika errefuxiatu eragin zituen. Era berean, aurretik bagenekien gauza bat egiaztatu ahal izan genuen: nahi denean, gauzak zentzuz egin daitezkeela. Azken urteotan lehen aldiz, egoerak eskatzen zuen mailako erantzuna eman zitzaion Ukrainako biztanleek pairatzen zuten krisiari. EBk 55/2001 Zuzentaraua aktibatu zuen eta, horrek, aldi baterako babesa ematea erraztu zuen. Pozten gaitu esateak administrazio guztiak -tokikoak, autonomikoak zein estatukoak- mobilizatu egin zirela eskumenen inguruko letra txikiari gehiegi erreparatu gabe. Aldiz, atsekabetu egiten gaitu esateak Ukrainatik ez zetozen gainerako pertsonen asilo-eskubiderako aukerak berdin jarraitu zutela. Eta berdin jarraitzen dute.

Dokumentu honek proposamen batzuk jasotzen ditu EAEko udalek eta aldundiek datozen lau urteetarako politika publikoak diseinatzean kontuan har ditzaten. Gure asmoa oinarritzkoa da: EAEko herri eta hirietan babesa bilatzen duten bizilagunen eskubideak benetan aitortu daitezzen bermatzen laguntzea. Orain badakigu egoerak eskatzen duen neurriko erantzunak eman daitezkeela. Gehiago espero dezakegu. Askoz gehiago.



Proposamenak



©Zehar-Errefuxiatuekin / Maite Martínez

1 Udal errolda

Erroldarik ez izatea oztopo bihurtu da zerbitzu publikoetara sarbidea izateko, hezkuntzara, enplegurako prestakuntzara, osasun-arretara eta gizarte-prestazioetara, besteak beste.

- Gizarte-zerbitzuen bidez modu normalizatuan erroldatu ezin diren pertsonen errolda bermatzea, dagozkien eskubide eta betebeharretarako sarbidea ziurtatzeko.
- Erroldarik ezin eskuratzeak eragiten duen zaugarritasun egoeraz baliatzen diren legez kanpoko eta irabazi-asmoko jarduerak eragozteko kontrol-sistemak ezartzea. Jarduera horietako bat gezurrezko erroldak saltzea da, zeinen truke gero eta diru kopuru handiagoak eskatzen diren. Nolanahi ere, neurri hori ez litzateke beharrezkoa izango aurrekoa beteko balitz.

2 Gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren prestazioak eta zerbitzuak

Salbuespenak salbuespen, udal eta foru mailan ez dago gizarte-bazterketa pairatzeko arriskuan dauden pertsonentzako inolako espaziorik, ez arreta-espezifikokoari lotutakoak, ez eguneko zein gaueko arretari dagozkionak.

- Pertsona guztiek larrialdi-zerbitzuetarako sarbidea izango dutela bermatzea, zerbitzu horiei buruzko araudia betez.
- Actualizar los criterios de habilitación de plazas de refuerzo en albergues por circunstancias climatológicas adversas, de forma que sean menos restrictivos.
- Eguraldiaren arabera aterpetxeetan plaza gehiago jartzeko irizpideak eguneratzea eta malgutzea.
- Udal-zerbitzuen gizarte-larrialdietako estaldura zabaltzea, bereiziki adingabeak dituzten bizikidetzako unitateetan. Bizikidetzako unitate horientzako berariazko aterpetxeak sortzea aintzat hartzea. Bereiziki, ama bakarren enplegarritasuna oztopatzen ez duten zaintza-mekanismoak sustatzea.
- Hiriburuak ez diren udalerrietako baliabideak indartzea, batez ere egoitzenak.
- Dirulaguntzak emateko irizpideak argitzea eta eskura dauden tresna guztiak modu gardenean kudeatzea.
- Ikuspuntu intersekzionala txertatzea, beste faktore batzuek (degaitasuna, osasun mentala, sexu-aniztasuna...) eragiten dutenetan sortzen diren bazterkeria indartuko egoerei erantzuteko.



@Zehar-Errefuxiatuekin / Maite Martínez



©Zehar-Errefuxiatuekin / Maite Martínez

3 Etxebizitza

Gaur egun etxebizitzarako sarbidea bazterkeria-faktore nagusietako bat da. Aldagai ugari esku hartzen dute: alokairuko etxebizitzaren eskaintza mugatuak, neurrigabeko prezioek, jarrera arrazista eta xenofoboek eta abar luze batek.

- Udaletako eta Foru Aldundietako etxebizitza publikoen parkeak handitzea, bakarrik dauden pertsonen eta beste baliabiderik ez duten familien larrialdi-egoerei erantzuteko.
- Alokairuko etxebizitzaren baldintzen erregulazioa bultzatzea, bizigarritasun-baldintza egokiak bete ditzaten.
- Sentsibilizazio-programak bultzatzea, etxebizitzarako sarbidean arrazakeria desagerrarazteko.



©Zehar-Errefuxiatuekin / Maite Martínez

4 Asilo-eskatzailentzako eta errefuxiatuentzako probintzia eta udal mailako harrera-sarea

- Udalerrian edo inguruan dauden migratzaileen eta errefuxiatuen harrera-sareak indartzeko konpromisoa hartzea, horretarako nazioarteko babesa bilatzen duten pertsonen egoeraren espezifikotasuna txertatzea, arreta eta harrera integral profesionalerako mekanismoak martxan jarritz eta harrera-guneen mesederako garapen komunitarioa bultzatuz.
- Errefuxiatuei arreta psikologikoa emateko udal-zerbitzuak bultzatzea.

5 Haurrak eta gazteak

- Egoitza-baliabideak handitzea.
- Kasuak koordinatzea, desberdintasun sozialaren prebentzioa, eta prebentzio-neurriak hartzea.
- Gizarteratzeko Laguntza Berezia jasotzeko denbora-tartea eta zenbatekoa handitzea.
- Dokumentazio osoa adingabeen zentroetan izapidetzea.
- 17 urtetik gorakoentzako berariazko hezkuntza-programak sortzea. Prestakuntza arauturako sarbidea bermatzea eta lanbide-heziketarako sarbidea hobetzea.



©Zehar-Errefuxiatuekin



©Zehar-Errefuxiatuekin

6 Kulturarteko elkarbizitza

Elkarbizitza ezinezkoa da ez badira oinarrizko eskubideak bermatzen. Etxebizitza eta enplegu prekarioak izateak, irregulartasunak eta beste hainbat bazterkeria-faktorek errespetuan eta elkarreragin positiboan oinarritutako harreman horizontaldun gizarte inklusibo bat eraikitzea eragozten dute. Ezinbestean kontuan hartu beharreko abiapuntua da hori.

- Politika publiko guztietan kulturarteko ikuspegia txertatzea. Horretarako, bizikidetzako eta aniztasuneko udal eta foru

sailen zeregina birdefinitu behar da: gobernuko arlo guztien lehentasuna izan behar da aisialdi, kultura, merkataritza, kirol, hezkuntza eta lan guneak espazio anitz bihurtzea (ezberdintasunarekiko iragazkorrak), tratu-berdintasuna eraginkorra izan dadin.

- Bizikidetzaren sustatzeko proiektu komunitarioak bultzatzea.
- Detektatzen denean, indarkeria instituzional mota oro diagnostikatzea eta desagerraraztea. Udaltzainak kulturartekotasunaren eta migrazioen arloan prestatzea eta sentsibilizatzea, ikuspegi positibo batetik. Arrazaren arabera polizia-identifikazioekin amaitzea.
- Merkatuan dauden aldibereko itzulpen-tresnen erabilera sustatzea kultura eta jatorri desberdinetako pertsonen zerbitzu publikoetan arreta emateko.
- Diskurtso arrazistak eta xenofoboak desagerrarazteko programak eta ekintzak sustatzea.
- Hizkuntza ofizialen (gaztelania eta euskara) ikaskuntza-premiei erantzuteko formulak aztertzea, udal-zerbitzu osagarriak garatuz edo ikaskuntza-programak garatzeko gaitasuna duten gizarte-erakundeei laguntza emanez.
- Enpresentzako sentsibilizazio- eta prestakuntza-programak bultzatzea, zauggarritasun-egoeran dauden errefuxiatuek eta migratuek dituzten enplegarritasun-oztopoak deuseztatzeko.



©Zehar-Errefuxiatuekin / Maite Martínez

7 Giza eskubideen defendatzaileak

Giza eskubideen defendatzaileek beren osotasun fisiko eta mentala jartzen dute arriskuan eskubideen urraketan zigorgabetasunarekin amaitzeko eta bakea eta justizia soziala bultzatzeko borrokan. Kolektibo horretako kideek probabilitate handiagoa dute beren lurraldeetatik edo jardun-guneetatik era behartuan desplazatuak izateko.

Bereziki, lurra eta ingurumena babesten duten emakumeek pairatzen duten jazarpenaren helburua eredia ezartzea, beldurra sorraraztea eta gainerakoak isilaraztea da. Izu-politika honen helburua da gehiengoari kalte egiten dieten politika ekonomikoak eta komunitate zein lurraldeetan megaproiektuak ezartzea eragozten duten pertsonak mugiaraztea.

- Erakundeek giza eskubideen defendatzaileekin duten konpromisoa indartzea.
- Aliantzak babestea eta indartzea jatorrizko lurraldeetan lana monitorizatzen eta babesten duten erakunde eta kolektiboekin, haien borroken jarraitutasuna arriskuan jartzen duten kriminalizazio-prozesuen alerta- eta ikuskapen-sistemak bultzatuz eta indartuz.
- Babes ekimenak eta programak sendotzea.
- EAEn finkatutako eskubideen defendatzaileak aitortzea, entzutea eta babestea.



8 Garapen eredua

Inbertsio, ekoizpen, banaketa eta kontsumo dinamikek bizitzaren eta Lurraren iraunkortasuna bermatu behar dute.

- Enpresen eta Giza Eskubideen Euskal Zentroa abian jartzen laguntzea, Euskal Herriak Kapitalari Planto! plataformak bultzatuta.
- Enpresek nazioartekotzeko politikak nahitaez bete beharreko konpromiso sozialak, lan arlokoak eta ekologikoak ezartzen dituztela bermatzea, jarduerak giza eskubideen nazioarteko esparrura egokitzeko.
- Giza eskubideen nazioarteko esparrua urratzen duen enpresa edo erakunde oro kontratazio publikoko politiketatik kanpo gertatzen dela bermatzea, eta, aldi berean, nahitaez bete beharreko klausula sozialak, lan arlokoak eta ekologikoak ezartzea.
- Garapenerako laguntza-funts ofizialak irabazi-asmoa duten enpresen artean banatzen ez direla bermatzea.
- Gure lurraldean megaproiektuak eragozteko, batez ere estrategia kontinental zabalagoetan txertatuta badaude (hidrogenoa, interkonexioak, eta abar). Izan ere, horiek Hegoalde Globaleko herrialdeetan megaproiektu berriak ugaritzea eragiten dute, marko politiko bigunagoak aprobetxatuz eta ekonomian, jendartean, kulturen eta ingurumenean inpaktu handiak eraginez.
- Armen ekoizpenean, merkaturatzean eta finantzaketan inplikaturik dauden entitateek enpresak sustatzeko eta laguntzeko programa publikoak jaso ditzaten eragozteko.